

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

1/2023 Foru Dekretu-Araua, apirilaren 18koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudian presazko zerga aldaketa batzuk sartzen dituena.

Foru dekretu-arau honen bitartez, Gipuzkoako zerga esparruaren parte diren hiru xedapen arauemaike aldatzen dira, arrazoi diferentek tarteko: pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta Zergen Foru Arau Orokorra.

1. artikuluan, ezartzen da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan salbuetsita geratzen dela abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege-Dekretuaren esparruan ematen den 200 euroko zuzeneko laguntza, zeinaren helburua baita diru-sarrera eta ondare gutxiko pertsonen Ukrainako inbasiotik ondorioztatutako krisi energetikoak prezioetan eragindako ondorio kaltegarriak arintzea (20/2022 Errege Lege-Dekretua, abenduaren 27koa, Ukrainako Gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko eta La Palma uhartea berreraikitzen eta beste kalteberatasun egoera batzuetan laguntzeko neurri buruzkoa). Laguntza horrek jarraipena ematen dio lehendik onetsitako beste laguntza bati, hain zuzen ere, antzeko arrazoiak direla eta, ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege-Dekretuaren bidez onartutako laguntzari (11/2022 Errege Lege-Dekretua, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko, kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko eta La Palma uhartearen susperraldi ekonomiko eta sozialari laguntzeko zenbait neurri hartzen eta luzatzen dituena). Beste laguntza hori salbuetsita geratu zen Gipuzkoako Lurralde Historikoko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, prezioen gorakadaren ondorioak arintzeko presako zerga neurri berriei buruzko abuztuaren 30eko 2/2022 Foru Dekretu-Araua dela medio. Laguntza berrian interesatuta daudenek 2023ko otsailaren 15etik martxoaren 31ra bitarteko epea dute hura eskatzeko.

2. artikuluan, jarduera ekonomikoen gaineko zerga aldatzen da, Estatuak 2023. urterako Estatu Aurrekontu Orokorre buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 70. artikuluan 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin onetsi dituen aldaketak zergaren tarifetan sartzeko.

Alde horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsiak, 3. artikuluko d) letran xedatzen du ezen, zerga araudia sortzeko orduan lurralde historikoek, jardueren sailkapenei dagokienez, abeltzaintza, meatzaritza, industria, merkataritza, zerbitzu, lanbide eta arte arloetan, lurralde erkidean erabiltzen den sailkapen berbera erabili behar dutela, nahiz eta sailkapen zehatzagoa ere egin dezaketean, hala nahi izanez gero.

Beraz, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etortzeren, beharrezkoa da aipatutako aldaketak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudira ekartzea, apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onetsitako Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateginean jasota gera daitezkeen. Hona hemen aldaketa horiek:

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Decreto Foral-Norma 1/2023, de 18 de abril, por el que se introducen diversas modificaciones tributarias de carácter urgente en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Mediante el presente decreto foral-norma se modifican, con motivaciones diversas, tres disposiciones normativas que forman parte del marco tributario guipuzcoano: el impuesto sobre la renta de las personas físicas, el impuesto sobre actividades económicas y la Norma Foral General Tributaria.

En el artículo 1 se reconoce la exención en el impuesto sobre la renta de las personas físicas de la ayuda directa de 200 euros concedida en el marco del Real Decreto-ley 20/2022, de 27 de diciembre, de medidas de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la Guerra de Ucrania y de apoyo a la reconstrucción de la isla de La Palma y a otras situaciones de vulnerabilidad, con el fin de paliar el efecto perjudicial en los precios ocasionado a personas físicas de bajo nivel de ingresos y patrimonio, principalmente por la crisis energética derivada de la invasión de Ucrania. La citada ayuda da continuidad a la que previamente, y con una motivación semejante, se aprobó mediante el Real Decreto-ley 11/2022, de 25 de junio, por el que se adoptan y se prorrogan determinadas medidas para responder a las consecuencias económicas y sociales de la guerra en Ucrania, para hacer frente a situaciones de vulnerabilidad social y económica, y para la recuperación económica y social de la isla de La Palma, y cuya exención en el impuesto sobre la renta de las personas físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa se reconoció mediante el Decreto Foral-Norma 2/2022, de 30 de agosto, por el que se aprueban nuevas medidas tributarias urgentes para paliar los efectos derivados del alza de precios. Los interesados en la nueva ayuda deben solicitarla entre el 15 de febrero y el 31 de marzo de 2023.

En el artículo 2 se modifica el impuesto sobre actividades económicas, para incorporar a las tarifas del impuesto las modificaciones que, con efectos desde el 1 de enero de 2023, el Estado ha aprobado en sus tarifas en el artículo 70 de la Ley 31/2022, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2023.

En este sentido, cabe señalar que, en virtud de lo dispuesto en la letra d) del artículo 3 del Concerto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, los Territorios Históricos utilizarán la misma clasificación de actividades ganaderas, mineras, industriales, comerciales, de servicios, profesionales y artísticas que en territorio común, sin perjuicio del mayor desglose que de las mismas pueda llevarse a cabo.

Así pues, con arreglo a lo expuesto en el párrafo anterior, resulta necesario trasladar a la normativa tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa las citadas modificaciones, que deben incorporarse al Texto Refundido del Impuesto sobre Actividades Económicas, aprobado por el Decreto Foral Normativo 1/1993 de 20 de abril, y que se exponen a continuación:

Batetik, telefonia mugikorreko zerbitzuei aplikatzen zaizkien tarifak eguneratzen dira. Aldaketa hori Auzitegi Gorenaren uztailaren 14ko 996/2022 Epaiak ekarri du. Izan ere, Europar Batasuneko zuzenbidearen esparruan eman den epai horrek debekatu egin du, telefonia mugikorreko zerbitzuei tributazio handiagoa ezartzea.

Bestalde, aipatutako testu bateginaren I. eranskineko tarifan barruan, berregituratu egiten da lehen sekzioaren 84. multzoko 848. taldea, eta haren barruan bi epigrafe bereizten dira orain: 848.1 epigrafea, posta eta telekomunikazioetako zerbitzu integralak hartzen dituen, orain arte bezala, eta 848.2 epigrafe berria, bulego malguen («coworking-en») eta negozio zentroen zerbitzu integralak zergapetuko dituen eta era horretako zerbitzuak sailkatuta utziko dituen.

Gainera, beste jardura batzuen tributazioari dagokionez (mendiko gidariak, musikagileak, letristak, musika moldatzaile eta egokitzzaileak, idazleak, gidoilariak eta jardura artistiko eta kulturekin lotutako beste profesional batzuk), talde berriak sortzen dira, multzo bakoitzaren izenburua aldatzeaz gain.

Gainera, foru dekretu arauak xedapen iragankor bakarra jasotzen du ezartzeko ezen jardura ekonomikoen titularrak eraginda gertatzen badira estatuak zergaren tarifetan onartutako aldaketak beranduago eta atzerako eraginez onesteagatik, epe bereziak izango dituztela jardura ekonomikoen gaineko zergen matrikulan altak eta bajak hartzeko.

3. artikulua, bere aldetik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra aldatzen du (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua), eta helburua da zerga ondorioak dituzten datu erreserbatuak hirugarrenei lagatzeari buruzko artikulua barruan Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren aldeko lagapena ere jasotzea, etxeko zerbitzurako langile bat kontratatzen duten pertsonen Etxeko Langileentzako Sistema Bereziaren kotizazioan aplikagarri diren hobari jakin batzuk jasotzeko eskubidea duten zehaztu dezan. Hobari horiek, zeinak aurreikusita baitaude Etxeko langileen lan baldintzak eta Gizarte Segurantzakoak hobetzeari buruzko irailaren 6ko 16/2022 Errege Lege-Dekretuaren lehen xedapen gehigarriko 2. apartatuan, Etxeko Langileentzako Sistema Berezian kontingentzia aruntengatik enpresak Gizarte Segurantzarekiko kotizazioan egiten duen ekarpenaren ehuneko 45ekoa edo ehuneko 30ekoa dira, eta, besteak beste, enplegatzailearen ondare eta/edo errenta betekizun jakin batzuen mende daude. Irailaren 6ko 16/2022 Errege Lege-Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian jasotzen denez, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari dagokio Gizarte Segurantzaren kuotetan hobariak jasotzeko eskubidea erabakitzea, eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorri adieraztea onuradunak zein diren eta bakoitzari zer portzentaje aplikatu behar zaion. Aipatutako hobariak 2023ko apirilaren 1ean jarriko dira indarrean.

Bukatzeko, azken xedapenak dekretu-arauaren indarraldia eta ondorioak arautzen ditu.

Aipatutako arau aldaketek eragin differentea izan behar dutenez (2023ko urtarrilaren 1a edo 2023ko apirilaren 1a, kasuaren arabera), justifikatuta dago aldaketak urgentziaz onartzea.

Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 14. artikuluan xedatzen du ezen, premiazko eta aparteko arrazoiak daudenean, Diputatuen Kontseiluak behin-behineko arau xedapenak eman ahal izango dituela bere eskumen eskusiboen esparruan; xedapen horiek foru dekretu-arauak izango dira eta ezin eragingo diete foru organoen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari.

En primer lugar, destaca la actualización de las tarifas de los servicios de telefonía móvil. Esta modificación viene motivada por la Sentencia del Tribunal Supremo 996/2022, de 14 de julio, en cuya virtud, y basándose en el derecho comunitario, se prohíbe el establecimiento de una mayor tributación para los servicios de telefonía móvil.

Por otra parte, se reestructura el actual grupo 848 de la agrupación 84 de la sección primera incluida en las tarifas contenidas en el anexo I del citado texto refundido, desdoblándose en dos epígrafes: el 848.1 en el que se encuadran los vigentes servicios integrales de correos y telecomunicaciones y el nuevo epígrafe 848.2 para la tributación de los servicios integrales de oficinas flexibles («coworking») y centros de negocios, con el fin de clasificar este tipo de servicios.

Además, en relación con la tributación de otras actividades (guías de montaña, compositoras y compositores, letristas, arreglistas y adaptadoras y adaptadores musicales, escritoras y escritores, guionistas y otros y otros profesionales relacionados con actividades artísticas y culturales) se crean nuevos grupos y se modifica el título de la correspondiente agrupación.

Además, el decreto foral-norma incorpora una disposición transitoria única para establecer plazos especiales de altas y bajas en la matrícula del impuesto sobre actividades económicas para aquellos titulares de actividades económicas afectadas por la aprobación de forma retardada respecto a la aprobación por parte del Estado, y con carácter retroactivo, de las modificaciones en la tarifa del impuesto.

El artículo 3, por su parte, modifica la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, con el fin de incorporar al artículo regulador de la cesión de datos reservados con trascendencia tributaria a terceros, la cesión de datos al Servicio Público de Empleo Estatal para que determine el derecho de las personas que contraten a una persona trabajadora al servicio del hogar a determinadas bonificaciones en la cotización aplicables en el Sistema Especial para Empleados de Hogar. Las referidas bonificaciones, previstas en el apartado 2 de la disposición adicional primera del Real Decreto-ley 16/2022, de 6 de septiembre, para la mejora de las condiciones de trabajo y de Seguridad Social de las personas trabajadoras al servicio del hogar, son del 45 por ciento o del 30 por ciento en la aportación empresarial a la cotización a la Seguridad Social por contingencias comunes correspondiente al citado Sistema Especial para Empleados de Hogar y están condicionadas, entre otros, a determinados requisitos de patrimonio y/o renta de la empleadora. Según lo previsto en la citada disposición adicional primera del Real Decreto-ley 16/2022, de 6 de septiembre, corresponde al Servicio Público de Empleo Estatal la determinación del derecho a las bonificaciones en las cuotas de la Seguridad Social, debiendo dicho servicio comunicar a la Tesorería General de la Seguridad Social, las personas beneficiarias y el porcentaje que corresponda aplicar a cada una de ellas. Las bonificaciones en cuestión entran en vigor el día 1 de abril de 2023.

Por último, se incluye una disposición final que regula la entrada en vigor y efectos de la disposición.

Las modificaciones normativas aludidas deben tener diversos efectos; 1 de enero de 2023 o 1 de abril de 2023, según el caso, lo que justifica la aprobación de dichas modificaciones con carácter de urgencia.

El artículo 14 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, regula la posibilidad de dictar por el Consejo de Gobierno Foral, por razones de extraordinaria y urgente necesidad, disposiciones normativas provisionales, dentro del ámbito de sus competencias exclusivas, que tomarán la forma de decreto foral-norma, y que no podrán afectar a la organización, régimen y funcionamiento de los órganos forales.

Foru dekretu-arauak Batzar Nagusietan eztabaidatu eta bozkatu behar dira berehala, baliozkotuak izateko.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. *Diru-sarrera eta ondare gutxiko pertsona fisikoentzat abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege-Dekretuan aurreikusitako laguntza pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan salbuestea.*

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergatik salbuetsita dago Ukrainako Gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko eta La Palma uhartera berreraikitzen eta beste kalteberatasun egoera batzuetan laguntzeko neurriei buruzko abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege-Dekretuaren 74. artikuluan diru-sarrera eta ondare gutxiko pertsona fisikoentzat aurreikusten den laguntza.

2. artikulua. *Aldatzea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bategina, apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onetsia.*

2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek sartzen dira apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onetsitako Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateginaren I. eranskineko tarifetan:

Bat. Lehen sekzioaren 76. multzoko 761. taldea honela geratzen da idatzita:

* «761. taldea. Telefonía zerbitzuak.

– 761.1 epigrafea. Telefonía finkoko zerbitzua.

Kuota:

Gutxieneko udal kuota:

1.000 abonatu edo zatiki bakoitzeko: 62,20 euro.

Probintziako kuota:

1.000 abonatu edo zatiki bakoitzeko: 137,48 euro.

Estatuko kuota berezia:

1.000 abonatu edo zatiki bakoitzeko: 137,48 euro.

– 761.2 epigrafea. Telefonía mugikorreko zerbitzua.

Estatuko kuota berezia:

1.000 abonatu edo zatiki bakoitzeko: 137,48 euro.

761. taldearen ohar komuna: Abonatu kopurua kalkulatzeko, telefonía finko edo mugikorreko operadore bakoitzaren bidezko guztiak hartuko dira kontuan, hurrenez hurren.»

Bi. Lehen sekzioaren 84. multzoko 848. taldea honela geratzen da idatzita:

* «848. taldea. Zerbitzu integralak.

– 848.1 epigrafea. Posta eta telekomunikazioetako zerbitzu integralak. Estatuko kuota berezia: 12.020,24 euro.

Oharrak:

1.a. Epigrafe honen barruan sartzen dira posta zerbitzuak ematea, hau da, gutunak eta posta bidezko igorpenak jaso, onartu, sailkatu, tratatu, bideratu, garraiatu, banatu eta entregatzea modalitate guztietan; telegrama, telex, posta eta telegrafia bidezko igorpen zerbitzuak egitea, eta izaeraz aurrekoen pareko den beste edozein gauzatzea.

Las disposiciones así adoptadas deberán ser inmediatamente sometidas a debate y votación en las Juntas Generales para su convalidación.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

Artículo 1. *Exención en el impuesto sobre la renta de las personas físicas de la ayuda a personas físicas de bajo nivel de ingresos y patrimonio prevista en el Real Decreto-ley 20/2022, de 27 de diciembre.*

Está exenta del impuesto sobre la renta de las personas físicas la ayuda a personas físicas de bajo nivel de ingresos y patrimonio, prevista en el artículo 74 del Real Decreto-ley 20/2022, de 27 de diciembre, de medidas de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la Guerra de Ucrania y de apoyo a la reconstrucción de la isla de La Palma y a otras situaciones de vulnerabilidad.

Artículo 2. *Modificación del Texto Refundido del Impuesto sobre Actividades Económicas, aprobado por el Decreto Foral Normativo 1/1993 de 20 de abril.*

Con efectos a partir del 1 de enero de 2023, se introducen las siguientes modificaciones en las Tarifas del impuesto contenidas en el anexo I del Texto Refundido del Impuesto sobre Actividades Económicas, aprobado por el Decreto Foral Normativo 1/1993 de 20 de abril:

Uno. El grupo 761, de la agrupación 76 de la sección primera queda redactado en los siguientes términos:

* «Grupo 761. Servicios telefónicos.

– Epígrafe. 761.1. Servicio de telefonía fija.

Cuota:

Cuota mínima municipal de:

Por cada 1.000 abonadas o abonados o fracción: 62,20 euros.

Cuota provincial de:

Por cada 1.000 abonadas o abonados o fracción: 137,48 euros.

Cuota especial estatal de:

Por cada 1.000 abonadas o abonados o fracción: 137,48 euros.

– Epígrafe. 761.2. Servicio de telefonía móvil.

Cuota especial estatal de:

Por cada 1.000 abonadas o abonados o fracción: 137,48 euros.

Nota común al grupo 761: A efectos del cálculo de abonadas o abonados se considerarán todas las clientas y todos los clientes de cada operadora u operador de telefonía fija o móvil, respectivamente.»

Dos. El grupo 848 de la agrupación 84 de la sección primera queda redactado en los siguientes términos:

* «Grupo 848. Servicios integrales.

– Epígrafe. 848.1. Servicios integrales de correos y telecomunicaciones. Cuota especial estatal de 12.020,24 euros.

Notas:

1.a. Este epígrafe comprende la prestación de servicios postales, consistentes en la recogida, admisión, clasificación, tratamiento, curso, transporte, distribución y entrega de envíos de correspondencia y envíos postales en todas sus modalidades; los servicios de telegramas, télex, giro postal y telegráfico, así como cualquier otro de naturaleza análoga a los anteriores.

2.a. Posta zigiluak eta gainerako frankeo zeinuak jaulki eta banatzeko jarduera kuota gehigarriak ordaindu gabe egin ahal da.

– 848.2 epigrafea. Bulego malguen, «coworking» guneen eta negozio zentroyen zerbitzuak.

Udalaren gutxieneko kuota: 202 euro.

Probintziako kuota: 20.000 euro.

Estatuko kuota: 35.000 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartzen dira bulego malguk, «coworking» guneek eta negozio zentroyek beren bezeroei (enpresei eta profesionaleri) emandako zerbitzuak, horien helburua haien jarduera garatzeko azpiegitura eskaintzea denean: lan espazioak; bulegoak eta erabat hornitutako bilera, prestakuntza edo hitzaldi gelak; ekitaldiak; lanpostu malguak edo finkoak; komunikazio zerbitzua; bideokonferentzia eta Internetarako konexioa; bulego birtualak; agiriaren eta korrespondentziaren kudeaketa; idazkaritza, catering eta ofimatika zerbitzuak, eta abar».

Hiru. Bigarren sekzioaren 86. multzoa honela aldatzen da:

A) Multzoaren izenburua aldatzen da, ondoren zehazten den eran:

«86. multzoa. Lanbide liberal, artistiko, literario eta kulturak.»

B) 861. taldea honela geratzen da idatzita:

«861. taldea. Pintoreak, eskultoreak, zeramikariak, artisauak, grabatzaileak, falla egileak eta antzeko artistak.

Kuota: 115 euro.»

C) 864. talde berria gehitzen da, eduki honekin:

«864. taldea. Idazleak eta gidolariak.

Kuota: 115 euro.»

D) 869. talde berria gehitzen da, eduki honekin:

«869. taldea. Hirugarren sekzioan sailkatu gabeko jarduera artistiko eta kulturalekin lotutako beste profesional batzuk.

Kuota: 115 euro.»

Lau. 889. talde berria gehitzen da bigarren sekzioaren 88 multzoan, eduki honekin:

«889. taldea. mendiko gidariak.

Kuota: 126 euro.»

Bost. 034. talde berria gehitzen da hirugarren sekzioaren 03. multzoan, eduki honekin:

«034. taldea. Musikagileak, letristak, eta musika moldatzaile eta egokitzaileak.

Kuota: 100 euro.»

3. artikulua. *Zergen Foru Arau Orokorra aldatzea.*

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren 92. artikuluko 1. apartatuari q) letra gehitzen zaio, eta honela dio:

«q) Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoarekin lankidetzan aritzea, Etxeko langileen lan baldintzak eta Gizarte Segurantzakoak hobetzeari buruzko irailaren 6ko 16/2022 Errege Lege-Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian aurreikusitakoa betetzeko.»

2.^a Podrá realizarse, sin pago de cuota adicional alguna, la actividad relativa a la emisión y distribución de sellos de correos y demás signos de franqueo.

– Epigrafe 848.2. Servicios de oficina flexible, «coworking» y centros de negocios.

Cuota mínima municipal de: 202 euros.

Cuota provincial de: 20.000 euros.

Cuota estatal de: 35.000 euros.

Nota: Este epigrafe comprende los servicios prestados por las oficinas flexibles, «coworking» y centros de negocios, que ofrecen a sus clientes y clientes (empresas y profesionales) la infraestructura necesaria para desarrollar su actividad: espacios de trabajo, oficinas y salas de reuniones, de formación o de conferencias completamente equipadas, eventos, puestos de trabajo flexibles o fijos, servicio de comunicaciones, videoconferencia y conexión a Internet, oficinas virtuales, gestión de documentaciones y correspondencia, servicios de secretariado, «catering», ofimática, etc.»

Tres. La agrupación 86 de la sección segunda se modifica del siguiente modo:

A) Se da nueva redacción al título de la agrupación, en los siguientes términos:

«Agrupación 86. Profesiones liberales artísticas, literarias y culturales.»

B) El grupo 861 queda redactado en los siguientes términos:

«Grupo 861. Pintoras y pintores, escultoras y escultores, ceramistas, artesanas y artesanos, grabadoras y grabadores, artistas falleros y falleros y artistas similares.

Cuota de: 115 euros.»

C) Se añade un nuevo grupo 864, con el siguiente contenido:

«Grupo 864. Escritoras y escritores y guionistas.

Cuota de: 115 euros.»

D) Se añade un nuevo grupo 869, con el siguiente contenido:

«Grupo 869. Otras y otros profesionales relacionadas y relacionados con las actividades artísticas y culturales no clasificadas en la sección tercera.

Cuota de: 115 euros.»

Cuatro. Se añade un nuevo grupo 889 en la agrupación 88 de la sección segunda, con el siguiente contenido:

«Grupo 889. Guías de montaña.

Cuota de: 126 euros.»

Cinco. Se añade un nuevo grupo 034 en la agrupación 03 de la sección tercera, con el siguiente contenido:

«Grupo 034. Compositoras y compositores, letristas, arreglistas y adaptadoras y adaptadores musicales.

Cuota de: 100 euros.»

Artículo 3. Modificación de la Norma Foral General Tributaria.

Se adiciona una letra q) del apartado 1 del artículo 92 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que queda redactada en los siguientes términos:

«q) La colaboración con el Servicio Público de Empleo Estatal para el cumplimiento de lo previsto en la disposición adicional primera del Real Decreto-ley 16/2022, de 6 de septiembre, para la mejora de las condiciones de trabajo y de Seguridad Social de las personas trabajadoras al servicio del hogar.»

Xedapen iragankor bakarra. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren matrikulan altak eta bajak emateko epe bereziak.

Foru dekretu-arau honen 2. artikuluan jarduera ekonomikoen gaineko zergari dagokionez aurreikusitako epigrafeetako jardueretan diharduten zergadunek foru dekretu-arau hau indarrean jarri aurretik aurkeztu behar bazuten zergaren matrikulan alta emateko aitorpena, Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kudeaketarekin lotutako zenbait alderdi arautzen dituen azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretuak 7. artikuluan jasotakoari jarraituz, hila-beteko epea izango dute, hura indarrean jartzen den egunetik zenbatzen hasita, aipatutako alta aitorpena aurkezteko.

Era berean, jarduera horiek beste epigrafe baten barruan sailkatuta egin dituzten zergadunek aurreko paragrafoan adierazitako epe bera izango dute zergaren matrikulan baja aitorpena aurkezteko.

Zergadunek aurreko bi paragrafoetan adierazi diren epe berberak izango dituzte horietan aipatzen diren jarduerengatik alta, baja eta aldaketa aitorpenak aurkezteko.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea eta ondorioak izatea.

Foru dekretu-arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean, bertan espresuki jasota dauden ondorioak deusetan galarazi gabe.

Donostia, 2023ko apirilaren 18a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Markel Olano Arrese.

OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Jokin Perona Lerchundi.

(2885)

Disposición transitoria única. Plazos especiales en las altas y bajas en la matrícula del impuesto sobre actividades económicas.

Las y los contribuyentes que, ejerciendo las actividades previstas en los epígrafes del impuesto sobre actividades económicas, previstos en el artículo 2 de este decreto foral-norma, debieran haber presentado, de acuerdo con lo establecido en el artículo 7 del Decreto Foral 80/1991, de 19 de noviembre, por el que se regulan determinados aspectos en relación con la gestión del Impuesto sobre Actividades Económicas, la declaración de alta en la matrícula del impuesto antes de la entrada en vigor del presente decreto foral-norma, dispondrán de un plazo de un mes inmediatamente posterior a dicha fecha de entrada en vigor para la presentación de la citada declaración de alta.

Asimismo, las y los contribuyentes que hubieran venido ejerciendo las citadas actividades bajo la clasificación de otro epígrafe ya existente, dispondrán del mismo plazo previsto en el párrafo anterior para la presentación de la declaración de baja en la matrícula del impuesto.

Los y las contribuyentes dispondrán de los mismos plazos señalados en los dos párrafos anteriores para presentar las correspondientes declaraciones censales de alta, baja y modificación en relación con las actividades a que se refieren los mismos.

Disposición final única. Entrada en vigor y efectos.

El presente decreto foral-norma entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sin perjuicio de los efectos expresos previstos en el mismo.

San Sebastián, a 18 de abril de 2023.

EL DIPUTADO GENERAL,
Markel Olano Arrese.

EL DIPUTADO FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
HACIENDA Y FINANZAS,
Jokin Perona Lerchundi.

(2885)